

Larunbat Fever

Musikaren erritmoa jarraitzen zabilta, burua atzera-aurreraka astinduz. Eskuan duzun kubata zigizaga dabil alde batera eta bestera edalontzitik noiz irtengo. Aldiro, eskuz aldatzen duzu hoztaren hotzez eskuak gogortu ez dakizkizun. Izan ere, ohi duten legez, edari gutxiago kabit duzue dadin izotz franko bota diote zure edalontziari.

Jende asko dabil, gehiegi, ia ez duzu mugitzeko lekurik ere. Biztu eta itzaltzen diharduten argiek euren mugimenduak robotenak bailiran ikusarazten dizkizu. Dakizkizun abestiak gogoz abesten zabilta, kokotsa altxa eta begiak itxita. Ez duzu nabari zure ahotsa zein den txarra, musikaren bolumenak ia oso-osoaan estaltzen baitu. Ez dakizkizunak, ingelesez direnak batez ere, hortzartean abesten dituzu, inor zure ezjakintasunaz ohar ez dadin.

Batek daki zenbatgarren tragoa den eskuan duzuna. Zenuen lotsa apurra ere galdu duzu dagoeneko eta astiro-astiro hankak mugitzea ere ekin diozu, baten bateri eroritako tragok lurrera itsastan badizkizu ere. Ez du berorik egiten, baina

jendetzaren artean izerditan hasi zara.

Tupustean, musikak erabat hartuta zauzkala, zure atzealdetik agertu diren esku bik estali dizkizute begiak. Nor izan daitekeen pentsatzen hasi zara. Eskuinera jiratu duzu gorputza eta ezkerre gero, baina berak zure mugimenduak jarraitu ditu eta ez duzu ezer ikusterik izan. Deblauki, bularrak sentitu dituzu bizkar aldean eta neska dela konturatu zara. Diskotekako foku bortitzen argia atzamar bitarteetatik sartzen zaizu, gozetan ondo itxi gabeko pertsianatik eguzkiarena legez.

Halako batean nor den galdetu dizu. Burura etorri zaizkizun izenak esaten hasi zara, eta bere ezezkoek zerrenda etengabe luzatzen behartu zaituzte: Ane, Amaia, Miren, Ziortza... Igartzen ez duzula ikusita, etsita-edo, begiak aske utzi dizkizu. Jakin-minez, bizkor eman duzu buelta eta txundituta geratu zara. Zuk ezer esaterako musu bi eman dizkizu eta berak hartu du hizpidea. Aspaldian elkar ikusi gabe zaude-tela eta, nola zabiltzan galdetu dizu. Zuk betiko galderari betiko

(1985. Gernikako) Iban Auzokoa Olagoitia



Euskal Filologian lizentziatua da Deustuko unibertsitatean. Gaztea izanagatik onomastika alorrean, hiztegitintzan eta irakasle lanean ibili da. Gaur egun euskara irakasten dihardu Lauaxeta Ikastolan. Idaztea eta irakurtzea ditu zaletasun. Bergarako Idazle Eskolako 1. mailako ikaslea da.

eran-tzuna emanez ondo zabiltzala ihardetsi diozu, zu baino okerrago ere ibiliko dela jendea.

Musika ozenegi dago eta ia ez da ezer entzuten. Neska hurbildu egin zaizu horrela hobeto ulertuko diozulakoan. Belarri-belarrira ari zaizu hizketan. Badirudi ahotik darion keak esaten duen hitz bakoitzari forma ematen diola. Kolpetxo bi eman dizkio eskuartearen duen zigarroari zigarrokina jaus dadin. Zuk nahi gabe baina ia instintiboki lehenxeago bizkarraldean sentitu dituzun bularretara begiratu diozu zeharka.

Ikasketez hasi zarete hizketan. Parisen egon dela esan dizu Erasmus egiten. Izugarria dela gurasoen txapa barik bizitzea, probatu egin behar zenukeela. Zuk befiko moduan jarraitzen duzula esan diozu, gutxi agertzen



Komuneko ateari oinarekin bultza egin eta nortasun agiria ez ezik, nortasuna bera ere bertan utzita irten egin zara

zarela klasetik eta bizitza gozatu nahi duzula; Karpe Diem.

Ordu erdi daramazue berriketan eta lagunetako batzuk begira-begira daukazu jadanik. Imintzioka ari dira neska ederra dela eta espabilatzeko esanez. Zu gero eta larriago zaude ordea. Hainbeste denbora daramazu berarekin hizketan eta oraindik ez dakizu nor den ere. Nola esan ordea holakorik maitetiro hurbildu zaizunari? Klaseko neska guztiak erreparatzen hasi zara, futboleko taldekideen arrebak, zurekin oheratu direnak, baina alferrik, ez duzu nor den oriotzen.

Berak hizketan jarraitzen du, gero eta solteago; zu berriz gero eta larriago zaude. Estrategia horberik bururatu ez eta komunera

zoazela esan diozu, gexu baten itzuliko zarela. Komuneko ate handia ixtean ito egin da musika. Bizkarra atearen kontra jarri eta hasperen egin duzu.

Aurrez aurre dituzun txizontzien gainean dauden edalontzietako kalimotxo eta kubata hondarrek kolorea galduta daukate urtutako izotzak direla eta. Zuk ere etorkizun bera eman diozu zeureari eta esku batekin bakeroetako poltsiko bati tira egin diozu beste eskua hobeto sar dadin. Plastikotxo zabaldu eta harriaren gainean utzi duzun karnetea irauli duzu.

Sudurretik sartzeko zati handiegia direla iritzita, nortasun agiriaren kantoiarekin zanpatuz apurka-apurka birrintzen hasi zara. Jendea sartu-irtenean dabil

baina inor ez da harritzen zu ikusita. Diruzorrotik gastatu ez duzun diru-paper bakarra hartu, kiribildu eta bi muturretako bat sudurrera hurbildu duzu. Egindako tutuaren beste punta birrindutako hauts zuriaren gainean jarri, eta arnasa indartsu hartuta, prestatu duzun marra zuria desagertarazi duzu. Burua altxatu eta aurrez aurre duzun ispiluan sudurzuloen kanpoaldean hondarrak geratu zaizun begiratu duzu.

Komuneko ateari oinarekin bultza egin eta nortasun agiria ez ezik, nortasuna bera ere bertan utzita irten egin zara. Hara eta hona begiratu duzu, baina ez duzu inon ikusi. Zure adiskideek dantzan jarraitzen dute. Euretako batengana hurbildu zara eta lehenxeago zurekin hizketan egon den neska non dagoen galdetu diozu. Harriturik begiratu eta ez zarela inongo neskarekin hitz egiten egon esan dizu. Barrara joan zara eta sudurrean sartu berri duzun azken hamar eurokoarekin beste kubata bat eskatu duzu.